

2020KO OINARRI-ARAUAK

SARIAK

eki eraikin
▲ edificios eficientes ▲

Hitzaurrea

Gipuzkoako eta Arabako Finka Administratzaileen Lurralde Elkargoak, Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzarekin batera eta Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren eskutik, Ekierakin Sarien sorrera bultzatu du, finka-administratzaileek kudeatzen dituzten eraikinetan sortzen diren energia isuriak murrizten laguntzeko, sektore lauso gisa klima-aldaketan eragina izaten baitute.

Azken hogeita hamar urteotan, pixkanaka, kontsentsu zientifikoa sendotuz joan da "planetaren berotze globalaren jatorri antropogenikoa" deritzonaren inguruan. Hau da, komunitate zientifikoak ondorioztatu du giza jarduera dela Lurraren tenperatura igotzearen erantzulea, "Berotegi-efektuko gasen" (BEG) emisioen bidez; nagusiki, CO₂, metanoa eta ozono troposferikoa.

2014an, Klima Aldaketari buruzko Gobernu arteko Adituen Taldeak (IPCC, ingelesezko siglen arabera) bere azken Ebaluazio Txostena argitaratu zuen, eratu zenetik bosgarrena. Bertan, agerian jartzen zen klima-sistemaren aldaketa zalantzarik gabea dela, eta oso litekeena dela gertarera horren arrazoi nagusia berotegi-efektuko gasen (BEG) isuriak izatea.

Horren guztiaren ondorioz, klima aldaketari buruzko nazioarteko hainbat akordio sinatu dira, Nazio Batuen babespean. Rio de Janeirok Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmenarekin izan zuen abiapuntuaren ondoren, 1997an Kyoton hitzartu zena izan zen garrantzitsuena, baina, zalantzarik gabe, azkena da, 2015eko abenduan sinatutako Parisko Akordioa, nazioarteko komunitatearen ingurumen-agendan inflexio-puntu bat markatu duena.

Parisko Akordioaren helburu nagusia tenperatura globalaren igoera industria-iraultzaren aurreko mailekin alderatuta 2°C-tik oso behera mantentzea da, 1,5°C-ra mugatzeko ahaleginak eginez. Horretarako, hitzarmena sinatu duten herrialdeek berotegi-efektuko gasen isuriak murrizteko helburu zehatz bat finkatzeko konpromisoa hartu dute.

Europako Batasunak proposatu du 2050era begira isurketa-maila 1990ekoarekin alderatuta % 80-95 murriztea, "2050eko ekonomia hipokarboniko lehiakorrerako ibilbide-orria" dokumentuan jasotzen den bezala.

"Ekonomiaren deskarbonizazioa" lortzeko egiten ari den ahalegina izugarria da, eta eragile guztiek (herritarrek, eragile ekonomikoek eta gobernuek) estrategiak eta portaerak aldatzea eskatzen du. Horren ondorioz, "Trantsizio energetikoa" delakoari buruzko eztabaida piztu da, hau da, nola hel dakioken ia CO2 isurtzen ez duen ekonomia baterantz igarotzeko erronkari.

Bizitegi-sektorea funtsezko sektorea da gaur egungo estatuko eta Erkidegoko energia-testuinguruan, haren energia-eskariak duen garrantziagatik; izan ere, guztizko kontsumoari eta kontsumo elektrikoari dagokienez, % 17koa eta % 25ekoa da, hurrenez hurren, estatuan, eta % 25ekoa eta % 29koa 27en Europako Batasunean. Kantauri aldean kokatutako etxeen batez besteko kontsumoa 10.331 kWh-koa da urtean (iturria: 2016ko Sech-Sla Proiektua).

Bizitegi-sektorea 202.175 eraikinek osatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoan. Gipuzkoako Lurralde Historikoan 65.612 eraikin daude, 46.433 Araban eta 90.130 Bizkaian. (Iturria: Eustat).

Zioak

1.- Premia larria da klima-aldaketari aurre egiteko eta berotegi-efektuko gasen isurketak murrizteko ekintza erabakigarriak abiaraztea.

2.- Energiaren erabilera efizienteak eta energia berriztagarrien sustapenak funtsezko eginkizuna betetzen dute klima-aldaketa bizkortzen duten isurketak arintzerakoan.

3.- Jabetza Horizontalaren Legearen 20. artikulua esparruan, administratzen ditugun jabeakideen erkidegoei aholkuak emateko eginkizunean funtsezko eragile gisa aitortzen gaitu.

Finken administratzaileek eraikinaren kudeaketan erabakiak hartzeko duten zeregina funtsezkoa da ingurumenaren dimentsio berriari aurre egiteko orduan. Energiaren erabilera murriztea beharizan bat da, eta gaur egun aukera estrategiko ere izan behar du.

4.- Ingurumenaren dimentsioa kudeaketa-eremu berrizat hartzen dugu finka-administratzaileen eginkizunean, eta Eraginkortasun Energetikoa lehentasunezko esku-hartze eremua izango da.

5.-Energiaren kudeaketa efizientea aurrezteko aukera bat da administratzen ditugun erkidego-ekonomientzat, eta, era berean, aurrerapen esanguratsua ere bai gure zeregin profesionalen.

Deialdia egin duen erakundea

Gipuzkoako eta Arabako Finka Administratzaileen Lurralde Elkargoa (CAFGUIAL) da Ekieraikin Sarien deialdia egin duen erakundea.

CAFGUIAL Zuzenbide Publikoko Korporazioa da, legeak babestua eta Euskal Autonomia Erkidegoak eta Estatuak aitortua. Nortasun juridiko propioa du, baita gure helburu publiko zein pribatuak betetzeko gaitasun osoa ere.

Gure Elkargoaren funtsezko helburuak dira lanbidearen jarduna antolatzea, lanbidea ordezkatzeta, Elkargokideen interes profesionalak defendatzea, lanbidean jardutean arau deontologikoak eskatzea, izan daitekeen diziplina-jarduera eta, oro har, jarduera profesionala ahalik eta egokien egitea, elkargo horren eta elkargokideen interesak eta sozietateari eman dakiokeen zerbitzua koordinatuz eta, ETENGABEKO PRESTAKUNTZAREN bidez, lanbidea etengabe hobetzea eta Elkargokideen prestazio profesionalen kalitatea sustatuz.

Helburuak

Proiektu honen helburuak bat datoz Ekieraikin proiektuaren helburuekin.
Gainera, honako hauek finkatzen ditugu:

1. Finka administratzaileek beren eginkizuna betetzeko egiten duten lana eta konpromisoa sustatzea eta jendaurrean aitortzea, Energia Aurrezte eta Eraginkortasuna bultzatuz eta BEG isuriak arintzen lagunduz.
2. Jabekideen erkidegoei publikoki aitortzea klima-aldaketari laguntzen dioten energia aurreztearekin eta efizientziarekin eta isuriak arintzearekin duten konpromisoa.
3. Bizitokietan Energia-aurrezpena eta -efizientzia sustatzen duten proiektuen "Jardunbide Egokiak" jendaurrean ikusaraztea.
4. Erakunde publikoekin lankidetzan aritzea BEG isurketak murrizteko, klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko estrategietan.
5. Elkargokidetutako Finka administratzaileen zereginetan Energiaren aurrezpen eta efizientziaren kultura sustatzea, eraikinetan energiaren diagnosa egiteko tresnak erabiltzea sustatuz (Energia-auditoretzak edo Energiaren Diagnosiak)

Aplikazio-araudia

Sari hauek, oro har, norgehiagoka-araubide baten arabera bideratuko dira, publikotasunaren, gardentasunaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioen arabera.

Eskatzaileak

Eskatzaileak izango dira Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko herrialde historikoetan legez eratuta eta elkargokide diren finka administratzaileak.

Horrez gain, deialdi bakoitzean ezarritako baldintzak bete beharko dituzte. Ezin izango dira

sarituak izan Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. zenbakietan aurreikusitako egoeraren batean dauden erakundeak.

2. atala:

a) Epai irmo bidez diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzera kondenatuak izatea, edo delitu hauetakoren bat egiteagatik: prebarikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, eragimen-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

b) Borondatezko konkurtsoa deklaratzeko eskatu izana, edozein prozeduratan kaudimengabetzat jo izana, konkurtsoan deklaratu egotea, salbu eta horretan eraginkortasuna hartu badu hitzarmen batek, esku-hartze judizialaren pean egotea edo desgaituta egotea Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaituntza-aldia amaitu gabe.

c) Administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazpen irmoa eragin izana, kausaren batean errudun deklaratuak izan badira.

d) Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordekaritza dutenak Estatuko Administrazio Orokorreko goi-karguan aritzea arautzen duen martxoaren 30eko 3/2015 Legean, Herri Administrazioen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean eta ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan, Hauteskundeen Araubide Orokorri buruzkoan, araututako edozein kargu hautatzailetan sartuta egotea, araubide horiek arautzen dituen araudi autonomikoan ezarritako baldintzetan.

e) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez izatea, erregelamendu bidez zehaztutako moduan.

f) Egoitza fiskala paradisu fiskaltzat jotzen den herrialde edo lurralde batean izatea.

g) Diru-laguntzak itzultzeko betebeharrak egunean ez izatea, erregelamendu bidez zehaztutako moduan.

h) Ebazpen irmo baten bidez diru-laguntzak lortzeko aukera galdu izana, ebazpen honen edo hori ezartzen duten beste lege batzuen arabera.

3. atala:

Era berean, ezin izango dira onuradun edo erakunde laguntzaile izan ez-zilegitasun penalaren arrazoizko zantzuak aurkitzeagatik inskribatzeko administrazio-prozedura etenda duten elkarteak, 1/2002 Lege Organikoaren 30.4 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, harik eta dagokion erregistroan inskripzioa egiteko ebazpen judizial irmoa eman arte.

LEHIAKETAREN OINARRI-ARAUAK

1. artikulua. Sarrera

Gipuzkoa eta Arabako Finka Administratzaileen Lurralde Elkargoak Energiaren Efizientzia sustatzeko 2020ko I. Ekieraikin sarien deialdia egin du.

Ekieraikin sariak Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko finka administratzaile elkargokidetak garatutako proiektuak sustatuko dituzte. Proiektu horiek berritzaileago izan beharko dute Energiaren efizientziarako irizpideak aplikatzeari dagokionez.

Instalazioetan edo Eraginkortasun Energetikoaren irizpideen arabera egikaritutako eraikinak berritzeko edo birgaitzeko proiektuetan Energia Aurrezteko eta Eraginkortasun arloan garatutako edozein proiektu hartuko da kontuan.

Gipuzkoako eta Arabako Finka Administratzaileen Lurralde Elkargoak lehiaketaren antolaketarekin, garapenarekin, babesarekin eta jakinarazpenarekin lotutako alderdi guztiak kudeatu eta koordinatuko ditu.

Lehiaketan parte hartzea doakoa izango da. Hala ere, proiektuak prestatu eta bidaltzearekin zerikusia duten gastuak parte-hartzaileen kontura joango dira.

2. artikulua. Hautagaiak

Ekieraikin Sariak Gipuzkoako eta Arabako lurralde elkargoan eta Bizkaiko elkargoan elkargokideturako finka administratzaileek soilik parte har dezakete.

Parte-hartzaileek bidalitako proiektuaren eskubide guztiak izan beharko dituzte. Hau da, bizitegi-eraikinen batean Energia Aurrezteko eta Efizientziaz Erabiltzeko Proiektu baten inplementazioa kudeatu duen finka administratzaile izan beharko dute. Edonola ere, Gipuzkoako eta Arabako finka administratzaileak, Ekieraikin Sarien erakunde sustatzaile gisa, ez dira inoiz izango iruzurrezko ordezkariak duten proiektuen aurkezpenen erantzule.

Ekieraikin sarietara finken administratzaileak aurkeztuko dira banaka, eta Energia Aurrezteko eta Efizientziaz Erabiltzeko aurkeztutako proiektua gauzatzen lagundu duten teknikarien edo enpresen izenak adierazi ahal izango dira.

Gehienez, 3 proiektuak parte har dezakete eskatzaile bakoitzeko.

Aurkeztutako proiektuek amaituta egon beharko dute I.Ekieraikin Sarien edizioan proiektuak banatzen hasi baino 6 hilabete lehenago. Hau da, proiektuek 2020ko martxoaren 15a baino lehen amaituta egon beharko dute.

Ekieraikin sarietan parte hartzeagatik, hautagai/talde bakoitzak sarien oinarriak onartu eta

errespetatuko ditu

3. artikulua. Kategoriak

Ekieraijin sarietan hiru kategoria aurreikusten dira:

1.- Energia Aurrezteko eta Efizientziaz Erabiltzeko Proiektuak Instalazioetan

EECNen esparruan, sortze-ekipoak hobetuz energia aurreztea ahalbidetzen duten proiektuak hartuko dira kontuan, betiere erabilera, konfort termikoa edo airearen kalitateko prestazioak murrizten ez badira. Adibidez, honako hauek hartuko dira kontuan:

- Argindarrasortzeko sistemak (ekoizpen berriztagarria, kogenerazioa, autokontsumoa)
- Energia berriztagarrien sistemak, eraginkortasun handikoak eta hondakin-energien iturriak klimatizaziorako, hozteko eta etxeko ur berorako (eguzki-energia termikoa, bero-ponpa, biomasa, kogenerazioa eta trigenerazioa)

2.- Eraginkortasun energetikoko irizpideak betetzen dituzten errehabilitazio-proiektuak

Energia aurreztea ahalbidetzen duten hobekuntzak hartuko dira kontuan, batez ere eraikinen energia-kontsumoaren alderdi pasiboetan esku hartuz, energia-efizientzia handiagoa lortzeko, betiere erabilera-prestazioak, konfort termikoa edo airearen kalitatea murrizten ez badira. Adibidez, honako hauek hartuko dira kontuan:

- Inguratzailea birgaitzea (itxiturak, estalkiak, partizioak, leihoak, zubi termikoak, diseinu bioklimatiko-pasiboa edo berritzailea)
- Sistema osagarriak birgaitzea (aireztapena, airearen kalitatea, fatxada aktiboak)
- Birgaitze integralak (inguratzailea, aireztapena eta instalazioak).

3.- Energia Kudeatzeko Sistemak

Energia kudeatzeko gailuekin edo sistemekin egindako hobekuntzak hartuko dira kontuan, baldin eta energia aurreztea ahalbidetzen badute sortze-ekipoak berritu edo ordeztu gabe, eta erabilerako, konfort termikoko edo airearen kalitateko prestazioak murriztu gabe. Adibidez, honako hauek hartuko dira kontuan:

- Kontsumo elektrikoa aurrezteko erregulazio- eta kontrol-sistemak (erregulazioa, energia-monitorizazioa, telegestioa, eskariaren kudeaketa, ordutegien eta ekipoen optimizazioa, argiztapena, energia berreskuratzeko igogailua, ibilgailu elektrikoa kargatzeko instalazioak)
- Klimatizazioan, hoztean eta etxeko ur beroan aurrezteko erregulazio- eta kontrol-sistemak (ekipoen eta sareen erregulazioa, monitorizazio energetikoa, telegestioa, eskariaren kudeaketa, kostu-banatzailak, erabiltzailearentzako informazioa, urte-sasoiko biltegitzea)

4. artikulua.- Eskabideak aurkezteko epea eta modua

Eskabideak aurkezteko, www.ekieraijin.eus web-orrian parte hartzeko eskabidea egiteko inprimakia deskargatu beharko da.

Epea: Leihaketan parte hartzeko eskabideak/hautagaitzak **2020ko irailaren 15etik 2021eko urtarrilaren 30era bitartean aurkeztu beharko dira.**

Prozedura: interesdunek honako urrats hauek eman ahal izango dituzte:

- 1.- www.ekieraikin.eus webgunean sartzea (I.Ekieraikin sariak)
- 2.- Eraginkortasun Energetikorako I. Ekieraikin Sarietan "**Izena emateko formularioa**" betetzea eta eskatutako dokumentazio guztia eranstea. Dokumentazioa gehienez 12 Mb-ko ZIP fitxategi konprimatu batean entregatu behar da.
- 3.- Parte hartu nahi den **kategoriaren 1. eranskineko adierazleen taula betetzea.**

5. artikulua.- Proposamenak onartzea

Eskabideak jaso ondoren, berrikusi egingo dira, ondoren adierazten diren onargarritasun-baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko:

- a) Eskabideak garaiz eta behar bezala aurkeztea, deialdi bakoitzean ezarritakoaren arabera.
- b) Eskatzailea eta proiektua oinarri arautzaile hauetan eta deialdi espezifikoan ezarritako baldintzetara egokitzea.
- c) Sarien deialdian adierazten den beste edozein betekizun gehigarri.

Baldintza horiek betetzen ez dituzten eskabideak ez dira onartuko, eta, ondorioz, ezin izango dira ebaluatu hurrengo puntuetan azaltzen diren prozesu eta irizpideen arabera.

Aurreko puntuan adierazitakoaren arabera onartzen diren proposamenak ebaluazio-irizpide hauen arabera ebaluatuko dira:

6. artikulua.- Eskabideak/hautagaitzak baloratzea. Beharrezko dokumentazioa.

Aurkeztutako proposamen guztiak aurrehautaketa fasetik igaroko dira. Proposamenak objektiboki ebaluatuko dira, hiru kategorietako bakoitzean, aipatutako aurrehautaketa-faserako ezarritako adierazleen kalkularen arabera.

Hurrengo fasera igaroko dira hiru kategorietako bakoitzean baloraziorik onena jasoko duten 3 proposamenak. Aurrerago zehazten dira kategoria bakoitzaren adierazleak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan baloratuko dituzte epaimahaikideek eskabideak/hautagaitzak: epaimahaikideek hiru kategoriatan baloratuko dituzte

aurrehautaketa-fasea gaingituko duten 3 proiektuak, eta 1etik 10era kalifikatuko dituzte (10a da puntuaziorik handiena). Kalifikazio horretatik aterako da kategoria bakoitzeko proiektu irabazlea.

Honako hauek baloratuko dira:

- Bizigarritasuna hobetzea
- Erabiltzaileen eta/edo jabeen parte-hartze berritzaileko prozesuak
- Proiektuaren berrikuntza-maila eta proiektu berritzaileetan parte hartzea
- Soluzio teknologiko eta material jasagarriak
- Hiri-paisaia integratzea
- Lortutako aurrezkiak eta inbertsioaren errentagarritasuna
- Finantzaketa-eredu berritzaileak
- Proiektuaren bideragarritasun teknikoa
- Erreplikagarritasuna

Adierazleak eta balorazio-irizpideak kategorien arabera

1.- Instalazioetako energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko proiektuetarako adierazleak.

- Urteko energia-kontsumoa murriztea EECN helburuetarantz (birgaitutako eraikinaren energia-kontsumoa, CEPNRn kalkulatua eraikinaren m² erabilgarriaren arabera, kWh/m²a). EECNren CTE DB-HE 2019ko mugen arabera baloratua:
 - *EECN muga baino % 30 txikiagoa, 50 puntu*
 - *Egoitza: 22,4 kWh/m²a C1ean eta 26,6 kWh/m²a D1ean*
 - *Hirugarren sektorekoa: barneko batez besteko karga kontuan hartuta justifikatzea*
 - *EECN mugak, 40 puntu*
 - *Egoitza: 32,0 kWh/m²a C1ean eta 38,0 kWh/m²a D1ean*
 - *Hirugarren sektorekoa: barneko batez besteko karga kontuan hartuta justifikatzea*

- *EECN muga baino % 30 handiagoa gehienez, 25 puntu*
 - *Egoitza: 39,2 kWh/m²a C1ean eta 57,7 kWh/m²a D1ean*
 - *Hirugarren sektorekoa: barneko batez besteko karga kontuan hartuta justifikatzea*
- Energia-aurrezkiaren ehunekoak hobetutako zerbitzuetan (batez besteko energia-murrizketa hobetutako zerbitzu guztietan, fakturen bidez aurreztutako energia-kontsumoaren ehunekoan kalkulatuta). Gehienez 30 puntu.
- Aurrezki ekonomikoa (etxebizitza edo erabilera-unitate bakoitzeko hobekuntza guztiekin lortutako aurrezpena, hileko eta etxebizitza edo lokal bakoitzeko eurotan kalkulatua, fakturen bidez). Gehienez 10 puntu.
- Diagnostiko eta/edo auditoretza energetikoak aplikatzea birgaitze-proiektuan egindako jarduerak definitzeko (justifikazio-agiriak aurkeztea). Gehienez 10 puntu.

2.- "Eraginkortasun energetikoko irizpideak dituzten birgaitze-proiektuetarako" adierazleak

- Berokuntzaren eta hoztearen energia-eskaria murriztea (EEE lehen eta gero, %). Gehienez 40 puntu.
- Kalifikazio energetikoa CO₂ isurpenetan (EEEren A eta B kalifikazioa, ondoren). Emisioen A kalifikazioa 15 puntutan balioetsi da, eta EEEren B kalifikazioa 15 puntutan.
- Zubi Termikoak murriztea inguratzaile termikoan (kalkulua: Ψ aldea/ Ψ hasierako aldea, murrizketaren ehunekoak kalkulatuta). Gehienez 10 puntu.
 - ZT zutabea
 - ZT janbak, ateburua/pertsiana, alferiza
 - ZT forjatuaren aurrean
 - Fatxada-estalkia ZT
 - ZT fatxada-forjatua, NH lokalarekin kontaktuan
- Airearen kalitatea hobetzea. Gehienez 15 puntu, honela banatuta:
 - DB-HS3 emari nominalen aurrean galerak murriztea (beroa berreskuratzea edo kontrol- eta erregulazio-sistema, %). Gehienez 5 puntu.
 - Aireztapenaren eragiketaren kontsumo elektrikoa (SFP, W/(m³/h)). Gehienez 5 puntu.
 - Airearekiko iragazkortasuna (< 3), saiakuntza bidez egiaztatzea ate aireztatzailea < 3ren/h. Gehienez 3 puntu.

- Free-cooling eta aireztapen naturalarekin hozteko estrategiak. Gehienez 2 puntu.
- Aurrezki ekonomikoa (etxebizitza edo erabilera-unitate bakoitzeko hobekuntza guztiekin lortutako aurrezpena, hileko eta etxebizitza edo lokal bakoitzeko eurotan kalkulatu, fakturen bidez). Gehienez 10 puntu.
- Diagnostiko eta auditoretza energetikoak aplikatzea birgaitze-proiektuan egindako jarduerak justifikatzeko (justifikazio-agiriak aurkeztea). Gehienez 10 puntu.

3.- "Kudeaketa Energetikoaren Sistematarako" adierazleak

- Urteko energia-kontsumoa murriztea EECN helburuetarantz (birgaitutako eraikinaren energia-kontsumoa, CEPNRn kalkulatu eraikinaren m² erabilgarriaren arabera, kWh/m²a). EECNren CTE DB-HE 2019ko mugen arabera baloratua:
 - *EECN muga baino % 30 txikiagoa, 20 puntu*
 - *Egoitza: 22,4 kWh/m²a C1ean eta 26,6 kWh/m²a D1ean*
 - *Hirugarren sektorekoa: barneko batez besteko karga kontuan hartuta justifikatzea*
 - *Mugak: EECN, 15 puntu*
 - *Egoitza: 32,0 kWh/m²a C1ean eta 38,0 kWh/m²a D1ean*
 - *Hirugarren sektorekoa: barneko batez besteko karga kontuan hartuta justifikatzea*
 - *EECN muga baino % 30 handiagoa gehienez, 10 puntu*
 - *Egoitza: 39,2 kWh/m²a C1ean eta 57,7 kWh/m²a D1ean*
 - *Hirugarren sektorekoa: barneko batez besteko karga kontuan hartuta justifikatzea.*
- Energia-aurrezkiaren ehunekoa hobetutako zerbitzuetan (energia-kontsumoaren murrizketa hobetutako zerbitzu guztietan, adibidez, argiztapenean, mugikortasunean, klimatizazioan, hozketan, ur bero sanitarioan edo beste batzuetan, aurrezkiaren ehunekoa kalkulatu zerbitzuen fakturen bidez edo igogailuen eta ibilgailu elektrikoaren birkargaren kasuetarako kalkuluen bidez). Gehienez 45 puntu.
 - Energia aurrezteko igogailuetarako, aurreztutako kontsumoaren ehunekoa kalkulatu da, hobekuntzaren aurreko igogailuarekiko.
 - Ibilgailu elektrikoa kargatzeko instalazioetarako, 100 km-ko

desplazamendurako aurreztutako kontsumoaren ehunekoa kalkulatu da, eta pasabide-faktoreak erabiliko dira energia primarioaren kontsumoa hobekuntzaren aurreko ibilgailuarekiko kalkulatzeko.

- Aurrezki ekonomikoa (etxebizitza edo erabilera-unitate bakoitzeko hobekuntza guztiekin lortutako aurrezpena, hileko eta etxebizitza edo lokal bakoitzeko eurotan kalkulatu, fakturen bidez). Gehienez 10 puntu.
- Diagnostiko eta/edo auditorietza energetikoak aplikatzea birgaitze-proiektuan egindako jarduerak justifikatzeko (justifikazio-agiriak aurkeztea). Gehienez 10 puntu.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

1.- Izena emateko inprimakia.

2.- Jabekideen erkidegoko presidentek Ekieraikin sarirako idatzitako aurkezpen-gutuna, hobekuntza-proiektuaren esperientziaren asebetetze-maila deskribatuz.

3.- I. eranskinetako taulak, aurkezten den kategoriari buruzkoak, proiektuaren oinarritzko deskribapenarekin eta adierazleak kalkulatzeko aitortutako balioekin beteta. Eskatzaileak I. eranskinetako taulan jasotakoari buruzko informazio gehiago eman nahi badu, memoria edo proiektu teknikoa aurkeztu beharko du.

4.- Proiektuaren aurreko eta ondorengo Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiriak, Eusko Jaurlaritzaren erregistroan inskribatu izanaren egiaztagiriek. PDF formatuan eta formatu editagarrian entregatu beharko da, erregistratzeko eta kontrolatzeko erabilitako fitxategi guztiak barne, hala badagokio.

5.- EEEen jasotzen ez diren hobekuntzen kasuan, proiektuarekin lortutako hobekuntza energetikoak edo CO2 emisioak murriztekoak justifikatzeko kalkuluak aurkeztea.

6.- Hobetutako zerbitzuen energia-fakturak, gutxienez obra egin baino 12 hilabete lehenagokoak eta 6 hilabete geroagokoak. Banakako fakturak (gasa, elektrizitatea, beste batzuk) dituzten irakurketen edo kontsumoen kasuan, beharrezkoa da proiektuaren kontsumo errealean datuak titularren % 60ren kontsumo indibidualetatik abiatuta lortzea.

7.- Eraikinaren planoak

8.- Proiektuaren zirriborroak

9.- Hala badagokio, diagnostiko eta/edo auditoria energetikoaren dokumentua, sinadurarekin eta obraren aurreko datarekin.

7. artikulua. Epaimahaia eta azken erabakia

Ekieraikin sarietako parte-hartzaile guztiak aurrehautaketa eta hautaketa faseetako merezimenduengatik baino ez dira baloratuko (epaimahaiak ez du eskatzaileen nortasuna ezagutuko).

Epaimahaia honako hauek osatuko dute:

- Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaria (Epaimahaiburua)
- Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Arkitektura Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitzaren Behatokia.
- CAFGUIALen bi ordezkari (Gipuzkoako eta Arabako Finka Administratzaileen Elkargoa) (idazkari-lana eginez)
- Bizkaiko Finka Administratzaileen Lurralde Elkargoa.
- EHUko Arkitektura Goi Eskola Teknikoa
- ENEDI UPV/EHUko bi teknikari (Eraikuntzako Energia Ikertzeko Taldea)
- Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoa
- Euskadiko Aparejadoreen Elkargoko Eskualde Elkarte
- Euskal Autonomia Erkidegoko Industria Ingeniariei Kontseilua
- Ingeniaritza Teknikoen Euskal Kontseilua
- Deustuko Unibertsitatea. DeustoTech
- Mondragon Unibertsitatea

Epaimahaiburuaren eskumena da eztabaidak zuzentzea, eta Idazkariarena bilkuren aktak egitea. Epaimahaiburuak, bozkatzeko orduan berdinketa egonez gero, balio bikoitzeko botoa izango du.

Epaimahaiaren erabakiak azkenak dira eta apelaezinak izango dira. Sariak esleitzeko edo ez esleitzeko eskubidea izango du, parte-hartzaile bakoitzak Ekieraikin Sarien Oinarri hauetan zehaztutako baldintzak betetzen dituela aztertu ondoren.

Halaber, epaimahaiak eskubidea izango du araudi honetan ezarritako betekizunak eta baldintzak betetzen ez dituzten parte-hartzaileen dokumentazio osatugabea edo edozein proiektu baztertzeko.

Epaimahaiak ez du bere erabakiak justifikatzeko betebeharririk, azken erabakiak baitira.

Epaimahaiak, Sarien Oinarri hauek eta proiektuei buruz egiten duen ebaluazioa kontuan hartuta, egokitzen jotzen badu, Ekieraikin Sariak eman gabe uztea erabaki dezake.

8. artikulua. Parte hartzaileek onartu beharko dituzten

baldintzak

Ekieraikin sarietako parte hartzaile guztiek ondorengo baldintzak onartuko dituzte:

1. Lehiaketaren oinarri- arauak onartzea, erreserbarik gabe. Sarietan parte hartzeak oinarri hauek ezagutzea eta horiekin bat etortzea dakar, eta guztiz onartzea.
2. Bidalitako proiektuaren jabetza intelektual osoa duten ala ez adierazteko derrigorra. Proiektuaren jabetza intelektuala ez badago, ezinbestekoa izango da edozein hirugarrenen baimen guztiak lortzea.
3. Sariak emateko ekitaldira joatea, aukeratua edo saritua izanez gero.
4. Sariak antolatzeke baldintzekin, epaimahaiaren erabakiekin eta azken emaitzekin lotutako errekurtsioak jartzeari uko egitea.
5. Sariak onartzea, edozein motatakoak direla ere: ekonomikoak, materialak edo prestazioak.
6. Gipuzkoako eta Arabako Finka Administratzaileen Lurralde Elkargoa ezin izango da legez erantzuletzat jo hautagaiak asmatutako ideia, patente, eredu edo marken gainean.
7. Gipuzkoako eta Arabako Finka Administratzaileen Lurralde Elkargoa ez da izango materiala galtzearen, hondatzearen edo behar ez bezala garraiatzearen erantzule.
8. Ez da onartuko iruzurrezko edo irakurtezinezko materialik.
9. Ekieraikin sarietan parte hartzen dutenek baimena ematen diete antolatzaleei beren irudiak edozein hedabidetan (prentsa idatzia, telebista, sare sozialak, etab.) erabili eta zabaltzeko.
10. Parte-hartzaileek uko egiten diete beren irudi-eskubideei sarien premien alde, eta onartzen dute sariak banatzeko ekitaldian hartutako irudi guztiak askatasunez erabili ahal izatea.
11. Akatsak dokumentazioan. Ekieraikin sarietarako hautagaiei jakinaraziko zaie Ekieraikin sarietan parte hartzeko eskatutako dokumentazioa edo informazioa falta dela, jakinarazpen hau egin eta 7 eguneko epean aurkeztutako dokumentazioko akatsak eta/edo akatsak zuzen ditzaten.
12. Zuzentzeko dokumentazioa eta/edo informazioa adierazitako epean aurkeztu ez bada, sarietarako hautagaitza ez aurkeztutzat jo ahal izango da.

9. artikulua.- Sariak

Hauek dira lehiaketako sariak:

A kategoria. Energia aurreztea eta Efizientzia Instalazioetan.

1. saria

B kategoria. Birgaitze lanak aurrera eramatea energiaren erabilera efizientea lortzeko irizpideen arabera

1. saria

C kategoria. Energia Kudeatzeko Sistemak.

1. saria

Hedatze zabala egingo da komunikabideetan eta sektorean.

10. artikulua.- Sariak ematea

Euskal Autonomia Erkidegoko hiru kategorietako irabazleentzako Ekieraikin Sariak banatzeko ekitaldi bat antolatuko da, Energiaren Kontsumo ia Nulua duten Eraikinen Euskal Biltzarra egiten den aldi berean.

11. artikulua.- Konfidentzialtasuna

Sariketak irauten duen prozesu osoan, aurkeztu diren parte hartzaileen konfidentzialtasun osoa bermatuko da.

Epaimahaikide guztiek eta sariketan parte hartzen duten gainerako pertsonak konfidentzialtasun-adierazpen bat sinatuko dute, eta adierazpen horretan konpromisoa hartuko dute, idatziz, horiei buruzko inolako informaziorik ez jakinarazteko

12. artikulua.- Aurkeztutako dokumentazioa eta horri datxezkion eskubideak CAFGUIAL elkargoari lagatzea

1.- Ekieraikin sariketarako hautagaitzak aurkeztu dituzten parte-hartzaileek CAFGUIAL elkargoari, Sari hauek antolatzen dituen erakundeari, lagako dizkiote aurkeztutako dokumentazioaren testuak, irudiak, soinuak, marrazkiak eta gainerako edukiak erabiltzeko eskubideak, CAFGUIAL enpresak erreproduzitu, banatu eta jendaurrean jar ditzan, edozein euskarritan, hedapen-kanpainatan eta CAFGUIALEK Ekieraikin sarien inguruan egiten dituen beste jardura batzuetan, geografia- edo denbora-mugarik gabe.

2.- Hautagaiak aurkezten dituzten parte-hartzaileek jabetza intelektualeko eskubideak izan beharko dituzte, edo eskuratu beharko dituzte hautagai-zerrenden dokumentazioarekin batera ematen diren informazio, testu, irudi, soinu, marrazki eta gainerako edukien titular gisa, CAFGUIAL sozietateari erabiltzeko eskubideak laga ahal izateko.

3.- Parte-hartzaileek aurkeztutako dokumentazioa www.ekieraikin.eus webgunean argitaratuko da. Dokumentazio hori eta erabilera-eskubideak CAFGUIALi utziko zaizkio, zabaldu eta jendaurrean jar ditzan, 12. artikuluko honetako 1. eta 2. puntuetan jasotzen den bezala.

4.- CAFGUIALEk gorde ahal izango ditu Ekieraikin sarietarako hautagaitzak aurkezten dituzten parte-hartzaileek euskarri digitalean aurkeztutako dokumentazioaren testuak, irudiak, soinuak, marrazkiak eta gainerako edukiak, artxibo historikorako eta etorkizunean argitalpen, banaketa eta komunikazio publikorako izan daitezkeen erabileretarako, egiten dituen ekitaldietan, erakusketetan eta dokumentazioan.

13. artikulua.- Datuen babesa

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (DBLO) eta lege hori garatzeko araudian aurreikusitako ondoreetarako, jakinarazten da Gipuzkoako eta Arabako Finka Administrazioaren Lurralde Elkargoak sariak emateko prozesuetan parte hartzearen ondorioz bildutako datu pertsonalak erakunde horren titulartasuneko fitxategi batean sartuko direla, partaidetza hori kudeatzeko helburuarekin eta soil-soilik oinarri hauetan ezarritakoaren ondoreetarako.

Hautagai-zerrenden dokumentazioan agertzen diren pertsonen izaera pertsonaleko datuak, eta, hala badagokio, irudia, hainbat komunikabidetan eta www.ekieraikin.eus webgunean argitaratu ahal izango dira, datuen titularrek beren datu pertsonalak erabiltzeko baimena emanaz, eta Ohorerako, Pertsona eta Familien Intimitaterako eta Irudi Propioaren Eskubidearen Babes Zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Legearen arabera, Komunikabideetan eta www.ekieraikin.eus webgunean argitaratzen diren irudien eta gainerako edukien jabetza intelektualeko eskubide guztiak lagaz.

Datuen titularrek ez badute baimenik ematen datu pertsonalak arestian adierazitako helburuetarako tratatzeko, ez ditu datu horiek eman beharko, eta ezin izango du Ekieraikin sarietan parte hartu. Sariak horretan parte hartzen dutenek eta CAFGUIALen datuak tratatzen dituzten gainerako pertsonak CAFGUIALen sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, erregelamendu honetan adierazitako helbidean.

14. artikulua.- Erantzukizuna

Ekieraikin sarietan parte hartzen dutenak izango dira jabetza intelektual edo industrialeko eskubideak urratzearen erantzule bakarrak, bai eta hirugarrenen erreklamazioen erantzule ere, hautagai-zerrenden dokumentazioarekin batera entregatzen diren informazioa, testuak, irudiak, soinuak, marrazkiak eta gainerako edukiak entregatzeagatik, bai eta edozein eskubide urratzeagatik zuzenean edo zeharka egindako zehapen, isun edo arau-hausteen erantzule ere, eta CAFGUIAL jakinarekin gainean jarriko dute zentzu honetan aurkez daiekeen edozein

erreklamazio judizial edo judizioz kanpokoren aurrean.

15. artikulua.- Publizitatea

Oinarri arautzaile hauen testu osoa eta sariekin lotutako beste edozein agiri www.ekieraikin.eus webgunean kontsultatu ahal izango da.

Sarietan parte hartzen dutenei zabalkundea eman ahal izango zaie ohiko komunikazio-kanal eta -euskarrietan.

16. artikulua.- Idazkaritza teknikoa.

Ekieraikin sariei buruzko edozein kontsulta egiteko, Idazkaritza Teknikoaren helbide elektronikora jo beharko da: gabriel.ekieraikin@cafguial.net

Informazio guztia eta oinarri ofizialak www.ekieraikin.eus webgunean deskarga daitezke.

Donostia-San Sebastián

2020ko martxoaren 13an